8.1. El plazo de justificación de las subvenciones concedidas será de 3 meses a contar desde la finalización del proyecto/acción subvencionada.

8.2. Tanto las actividades como, en especial, los gastos justificados deberán estar siempre comprendidos dentro de las fechas del período de ejecución del proyecto/acción.

8.3. A los fines anteriores, se estará siempre a las fechas de inicio y fin del proyecto/acción que se fijen en la resolución prevista en el punto 6.2, las cuales a su vez se basarán en las fechas de inicio confirmadas por la entidad beneficiaria en la aceptación de la subvención mencionada en el punto 6.6 anterior.

8.4. Se deberá justificar el 100% del presupuesto presentado a subvención y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento, tal y como dispone la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

8.5. La justificación, tanto narrativa como financiera, de los proyectos/acciones subvencionados deberá ajustarse a los modelos específicos de informes y sus anexos, que se adjuntan como anexos a estas Bases.

8.6. Los gastos directos, referidos a las actividades objeto del proyecto/acción, deberán ser justificados mediante facturas originales y demás documentos de valor probatorio equivalente. Para su formato, en el caso de los proyectos de cooperación internacional en países empobrecidos, se estará a la legislación vigente del país en el que se ejecuten los mismos. En cualquier caso, la justificación deberá incluir siempre la identificación del prestador del bien/servicio, así como la descripción de dicho bien/servicio. Se admitirán copias compulsadas para el caso de gastos que han sido financiados exclusivamente con aportes de otros cofinanciadores. En caso de que su coste se prorratee entre varios financiadores, deberán incorporar un sello en el que se indique el porcentaje asignado al Ayuntamiento de Basauri. Para un mayor detalle de la tipología de gastos directos permitidos y sus límites, ver secciones siguientes de estas Bases.

8.7. Los gastos indirectos, referidos a costes administrativos generales de la entidad solicitante o sus socias locales, podrán ser justificados con una declaración propia de la entidad solicitante, en la que se confirme que se ha incurrido en los mismos y se haga constar su cuantía exacta. Para un mayor detalle de la tipología de gastos indirectos permitidos y sus límites, ver secciones siguientes de estas Bases.

8.8. La justificación deberá serlo siempre en relación a los mismos objetivos/logros, localización, grupos meta, socias, actividades, cronograma y presupuesto que fueron propuestos por la solicitante y aprobados por el Ayuntamiento de Basauri. Cualquier modificación del proyecto habrá de ser comunicada por escrito al Ayuntamiento de Basauri, tan pronto como aparezcan las circunstancias que las originan (y desde luego, siempre antes de que concluya el plazo para la realización del proyecto). El Ayuntamiento de Basauri deberá expresamente autorizar la modificación en caso de que se refiera a: a) prórrogas, cualquiera que sea su duración; b) cambio de objetivos/logros, localización, socias locales y/o grupos meta directos; y c) cambios en partidas presupuestarias mayores al 20% de cualquiera de las líneas de gasto afectadas (origen y destino).

8.9. El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente traerá como consecuencia la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, junto al interés de demora, en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

9. Distribución presupuestaria

9.1. Las cuantías presupuestarias concretas disponibles en esta convocatoria 2013 por parte del Ayuntamiento de Basauri para

laguntzak emateko erabilgarri duen zenbatekoa 162.976,72 eurokoa da. Basaurin garapenaren eta sensibilizazioaren aldeko hezkuntza-ekintzak antolatzeak erabilgarri dagoen zenbatekoa 50.325,57 eurokoa da.

II. KAPITULUA

GGKE-EI EMATEKO DIRU-LAGUNTZAK, TXIROTUTAKO HERRIALDEETAN LANKIDETZA-PROIEKTUAK EGIN DITZATEN

- Laguntza-mota: Garapenerako lankidetzak.
- Diru-laguntzaren xedea: Garapenerako laguntza-programak.
- Aurrekontu-saila: 13.3233.48102.
- Sailaren azalpena: TC. Hirugarren Mundua Laguntzeko Kanpaina. Garapenerako eta Immigrazioarako Lankidetzak.
- Zenbatekoa: 162.976,72 euro.
- Diru-laguntza emateko prozedura: Lehiaketa.

10. Xedea

10.1. Oinarri hauen xedearen ondoretarako, hegoaldeko garapenerako lankidetzak-proiektutzat hartuko da berariazko garapen-helburu bat betetzeko diseinatu den jardueren multzoa. Garapen-helburu hori zehatz, neurgarria, epe zehatz baterakoa, herrialde zehatz batean eta populazio zehatz batekin egitekoa izango da, eta, behin proiektua amaituta, teorikoki ondorio iraunkorrak izan beharko ditu.

10.2. Horregatik, oro har, unean uneko ekintzak, berez agortzen direnak ezin izango dira aukeratu (materialak edo tresneria bidaltzea, ikastaro bakanak egiteko bekak, trukeak, pertsona batzuk hegoaldera bisitan joatea, etab.); betiere, baldin eta aurreko atalean zehaztuta dauden betekizunak betetzen dituen beste ekimen handiago batean sartuta ez badaude.

10.3. Proiektuak irabazi asmorik gabea izan behar du (alegia, erakunde eskatzaileari edo haren tokiko bazkideei ezin die zeharka edo zuzenean diru-etekinik ekarri); eta ezin da proselitista izan (hots, ezin du politika-interes alderdikoak lortzea xede eduki). Azkenean helburuak haxe izan behar du: pobrezia-aren aurka borrokatzea, giza- eta erakunde-gaitasunak indartzea eta txirotutako herritar ahulen eskubideak bermatzea eta sustatzea.

11. Lehenetasunak

11.1. Honako hauen arabera izango dira: a) Basaurik lagundu ohi dituen esparruak; b) konparaziozko abantailak, haren balio erantsia eta udalerrian dauden GGKEak; eta, ezinbestean, c) eskualde edo herrialde ahulenak, GGI txikiak dutenak, gai nagusizat hartzea. Unean uneko salbuespenak alde batera utzita, udal laguntza bereziki bideratu nahi zaie Latinoamerikari eta Afrikari.

11.2. Arrazoi berberengatik, Basauriko laguntzak lehenesten dituen sektoreak, salbuespenak salbuespen, honako hauek izango dira (GLB-ELGaren definizioaren arabera): 112 – Oinarritzko Hezkuntza; 122 – Oinarritzko osasuna; 130 – Ugalketa-osasuna; 140 – Ura eta saneamendua; 151 – Gobernua eta jendarte zibila (eta garrantzi berezia emango zaie generoa eta emakumeen jabetzaren lantzen dituzten erakundeei laguntza ematea xede dutenei – 15170); 152 – Bakea eta gatazkei aurrea hartzea; 311 – Nekazaritza; 312 – Basoak eta 313 – Arrantza (azken hiru kasu horietako jarduerak elikadura-subirotasuna erkidego ahuletan hobetzea izan behar dute xede zuzentzat); 410 – Ingurumena.

12. Proiektu guztiek bete beharrekoak

12.1. Jaiotza, erlijioa, sexua edo adina direla eta, proiektuek ezin izango dute inolako bazterketarik eragin proposatutako ekintzaren protagonistak diren herritarren artean. Izan ere, lortzea aurreikusi diren ondorioak baliatzerakoan, genero-berdintasuna bermatzeko neurriak bultzatuko dituzte, bai eta epe luzeagoan, emakumeen eginkizunak eta aintzatespen soziala eta politikoa erkidegoetan hobetzen lagunduko duten ekimenak ere.

12.2. Proiektuek xede dituzten erkidegoetan ehun-sarea eta parte-hartzea indartuko dituzte, eta honako hauek sustatuko: oinarritzko gizarte-erakundeak edo erkidegoko erakundeak sortzea, finkatzea eta inplikatzeko, bai eta tokiko agintariekin eta erabakiak hartzeko instantziekin duten lotura ere.

12.3. Garapen-estrategia edo prozesu zabalagoetan modu agerian sartuta egon behar dute: tokiko bazkideek proiektuak inple-

subvenciones a ONGD en materia de proyectos de cooperación al desarrollo en países empobrecidos es de 162.976,72 euros. El importe disponible para acciones de Educación para el desarrollo y sensibilización en Basauri, es de 50.325,57 euros.

CAPÍTULO II

SUBVENCIONES A ONGD PARA REALIZAR PROYECTOS DE COOPERACIÓN EN EL SUR

- Línea de subvención: Cooperación al desarrollo.
- Concepto subvencionable: Programas ayuda al desarrollo.
- Partida presupuestaria: 13.3233.48102.
- Partida Descripción: T. C. Campaña de Ayuda al 3er Mundo. Cooperación al Desarrollo e Inmigración.
- Importe: 162.976,72 euros.
- Régimen de Concesión: Concurrencia competitiva.

10. Objeto

10.1. A efectos de las presentes Bases, se entenderá por proyecto de cooperación para el desarrollo en países empobrecidos un conjunto de acciones diseñadas para lograr un objetivo específico de desarrollo, concreto y medible, en un período determinado, en un país y para una población meta predefinida, cuyos efectos deben ser teóricamente perdurables una vez finalizada su ejecución.

10.2. Por ello, y como regla general, no serán elegibles las acciones puntuales y aisladas de apoyo, que se agoten en sí mismas (donación y/o envío de materiales o equipos, becas para cursos aislados, intercambios y/o visitas de personas del Sur, etc.) siempre que no estas no estén insertas en el marco de otra iniciativa superior que cumpla con los requisitos del apartado anterior.

10.3. El proyecto debe carecer de ánimo de lucro (no generar ningún tipo de beneficio económico directo o indirecto para la entidad solicitante o sus socios locales) y no incurrir en proselitismo (perseguir intereses políticos partidistas). El fin último debe ser exclusivamente la lucha contra la pobreza, el fortalecimiento de capacidades humanas e institucionales y la garantía/promoción de los derechos de poblaciones vulnerables en países empobrecidos.

11. Prioridades

11.1. De acuerdo a: a) las zonas en las que tradicionalmente se ha centrado la cooperación apoyada por Basauri, b) las ventajas comparativas y valor añadido de la misma y las ONGD con presencia municipal, y c) el necesario enfoque hacia regiones/países más vulnerables, con IDH más bajo, las regiones/países prioritarios en los que, salvo excepciones puntuales, se desea concentrar el apoyo municipal son América Latina y África.

11.2. Por las mismas razones, las prioridades sectoriales de la cooperación municipal de Basauri se concentrarán, salvo excepciones puntuales, en las siguientes líneas (según sectores oficiales y su alcance, definidos por el CAD-OCDE): 112 – Educación Básica; 122 – Salud básica; 130 – Salud reproductiva; 140 – Agua y saneamiento; 151 – Gobierno y sociedad civil (con énfasis especial en los dirigidos a apoyar a organizaciones que trabajen aspectos de género y empoderamiento de mujeres- 15170); 152 – Paz y prevención de conflictos; 311 – Agricultura, 312 – Bosques y 313 – Pesca (en estos 3 últimos casos debe tratarse de acciones que se dirijan directamente a la mejora de la soberanía alimentaria de comunidades vulnerables); 410 – Medioambiente.

12. Requisitos comunes a todos los proyectos

12.1. Que no contemplen ninguna discriminación por razón de raza, religión, sexo y/o edad entre la población protagonista de la acción propuesta, en especial incorporando medidas que garanticen la equidad de género en el acceso a los resultados previstos y contribuyan a mejorar, a más largo plazo, el rol y la posición sociopolítica de las mujeres en sus comunidades.

12.2. Que fortalezcan el tejido social y la participación de las comunidades con las que se trabajen, potenciando la creación, consolidación, trabajo en red e implicación de Organizaciones Sociales/Comunitarias de Base, así como su vínculo con las autoridades e instancias de decisión locales

12.3. Que se inserten claramente en procesos y/o estrategias de desarrollo más amplias, tanto por parte de las socias loca-

mentatuko dituzte, eta proposatutako ekintzak bat etorriko dira toki-garapenerako politikei eta lehenetasunei lotutako jarduerekin, eta, gainera, koherenteak izango dira haiekin.

12.4. Tokiko bazkide baten edo batzuen bitartez gauzatu behar dira, edo nazioarteko erakunde-kideen bitartez. Tokiko bazkidea pertsona juridikoa den irabazi asmorik gabeko erakunde bat izan daiteke, edo erakunde publiko bat. 6.2 atalean aipatu den ebazpena eman aurretik, eta ebazpena emateko betekizun gisa, erakunde eskatzaileak agiri batean zehaztu beharko ditu berezko konpromisoak eta ardurak, tokiko erakunde-kideenekin batera; eta alderdi biek sinatu beharko dute agiria. Tokiko bazkideek edo nazioarteko erakunde-kideek diru-laguntzaren zati bat edo diru-laguntza osoa egikaritzen badute ere, jardun hori ez da azpi-kontrataziotzat hartuko, 38/2003 Legearen 29. artikularen ondoretarako.

12.5. Jada amaituta dauden proiektuak ez dira onartuko. Edonola ere, proiektuen egikaritzapenak hasi beharko du diru-laguntza erakunde eskatzailearen kontu korrontean sartu eta hurrengo bi hilabeteetan.

12.6. Proiektuek 24 hilabeteko epean bukatu beharko dute.

12.7. Oro har, behar bezala justifikatu diren salbuespenak izan ezik, proiektuek agerian erakutsiko dute Basauriko Udalaren logotipoa, ahal denean. Era berean, proiektuen barnean egiten diren gainerako jardueretan udal erakundearen laguntzaren berri eman-goda.

13. Eskabideak eta formatuak

13.1. Proiektuen alderdi tekniko eta narratiboak, batetik, eta finantzaketa-alderdiak, bestetik, oinarri hauetako eranskinetan bildu diren aurkezpen-formatuetan idatzi beharko dira. Agiriaren egitura, atalak, edukia, luzera eta atxiki beharreko eranskinak (hala badagokio) ezin izango dira aldatu. Formularioak (eta, ahal denean, eranskin guztiak) idatzizko euskarrian eta euskarri elektronikoa aurkeztuko dira.

13.2. Formatu horiek eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean, eta interesdunek deskargatu ahal izango dituzte.

14. Proposamenak balioesteko irizpideak

14.1. Proposamenak balioesteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat: a) proiektuaren kalitate teknikoa (30 puntu); b) eragileen gaitasuna eta harremanen kalitatea (35 puntu); c) genero-ikuspegia (15 puntu); d) aurrekontua (20 puntu). Irizpide bakoitzaren ezaugarri zehatzagoak eta baremoan duten eragina jakiteko, oinarri hauekin batera doan taula begira dezakezu.

15. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak eta mugak

15.1. Eskatzaile bakoitzak proposamen bat baino ezin izango du aurkeztu txirotutako herrialdeetan garapena bultzatzeko lan-kidetzako proiektuetarako diru-laguntzen deialdian.

15.2. Basauriko Udalari eskatuko zaion diru-laguntzak gutxienez 20.000 eurokoa eta gehienez 50.000 eurokoa izan beharko du aurkezten den proiektu bakoitzean. Eskatu den zenbatekoa muga horien barnean ez badago, proposamen hori aurkeztu duen erakundeari zenbatekoa berrikusteko eskatuko zaio, aurreko 5.3. atalean aurreikusi den zuzenketak egiteko epean. Proposamena zuzentzen ez bada, proiektua ez hautagarritzat joko da, haren kalitate teknikoa balioetsi gabe.

15.3. GGKE batzuek osatutako partzuergoek aurkez ditza-keten proposamenei dagokien, eskatutako diru-laguntza gehienez ere 80.000 eurokoa izan daiteke proiektuko.

15.4. Aurreko ataletan onartu diren udal diru-laguntzaren mugak direnak direla, Basauriko Udalak gehienez ere proiektuaren zenbateko osoaren %80 finantzatzeko du. Iturri publikoek edota pribatuak emango dute gainerako finantzaketa. Erakunde eskatzaileak edo haren tokiko bazkideak egindako gauzazko balioespenak bakarrik onartuko dira langileen kasuan. Edonola ere, iturri guztiek emandako finantzaketa-zenbatekoa ezin izango da inoiz proiektu osoaren guztizko kostua baino handiagoa izan, oinarri hauetako 7.1 atalean zehaztu den bezala.

15.5. Basauriko Udalaren diru-laguntzaren ardurapeko funtzionamendu-gastu zuzenen gehienezko ehunekoak ezin izango

les que las implementan, como en relación al encaje y coherencia de las acciones propuestas en políticas y prioridades de desarrollo locales.

12.4. Que se realicen a través de uno o varios socios locales o contrapartes extranjeras. El socio local podrá ser una entidad sin ánimo de lucro con personalidad jurídica o una institución pública. Previamente a la aprobación de la resolución prevista en el punto 6.2, y como requisito para la misma, la entidad solicitante deberá aportar un documento donde consten los compromisos y responsabilidades propios y de la/s contraparte/s local/es, firmado por ambas partes. La ejecución total o parcial de la subvención por parte de estos socios locales o contrapartes extranjeras no será considerada como subcontratación, a los efectos del artículo 29 de la Ley 38/2003.

12.5. No serán aceptados proyectos ya concluidos. En todo caso, los proyectos deberán comenzar a ejecutarse durante los 2 meses siguientes transcurridos desde el ingreso efectivo de la citada subvención en la entidad solicitante.

12.6. Que los proyectos finalicen en un plazo máximo de 24 meses.

12.7. Que, en términos generales y salvo excepciones debidamente justificadas, los proyectos incorporen de forma visible el logotipo del Ayuntamiento de Basauri en aquellos casos en los que sea posible. De la misma forma, que se difunda el apoyo del ente municipal en el resto de actividades llevadas a cabo.

13. Solicitudes y formatos

13.1. Tanto los aspectos técnico-narrativos, como los presupuestarios de los proyectos deberán ser redactados en los formatos específicos de presentación recogidos como Anexo a las presentes Bases, respetando siempre la estructura, apartados, contenido, extensión y adjuntos (en su caso) previstos. Los formularios (y todos sus Anexos, cuando sea posible) se presentarán tanto en soporte escrito como en formato electrónico.

13.2. Los citados formatos estarán disponibles en formato electrónico en la web Municipal, para su descarga por las organizaciones interesadas.

14. Criterios de valoración

14.1. Para la valoración de las propuestas se tendrán en cuenta los siguientes criterios: a) Calidad técnica del proyecto (30 puntos); b) Capacidad de actores y calidad de sus relaciones (35 puntos); c) Enfoque de género (15 puntos); d) Presupuesto (20 puntos). Los aspectos concretos y más detallados a valorar en cada criterio, así como su peso en la baremación pueden consultarse en la tabla anexa a las presentes Bases.

15. Cuantías y límites subvencionables

15.1. Cada solicitante podrá presentar sólo una propuesta a la convocatoria de proyectos de cooperación al desarrollo en países empobrecidos.

15.2. La subvención solicitada al Ayuntamiento de Basauri para cada uno de los proyectos presentados, debe obligatoriamente encontrarse entre 20.000 euros, como límite mínimo, y 50.000 euros, como límite máximo. En caso de que la cantidad solicitada no se hallase dentro de estos límites, se solicitaría la revisión de la misma a la entidad que presentó la propuesta, durante la fase previa de subsanación prevista en el punto 5.3. En caso de no corregirse, el proyecto se considerará sin más como no elegible, sin entrar a valorar su calidad técnica.

15.3. Para el caso de propuestas presentadas por un consorcio de varias ONGD, el límite máximo de subvención solicitada por proyecto se eleva hasta 80.000 euros.

15.4. Independientemente de los límites absolutos de subvención municipal permitidos en los puntos anteriores, el Ayuntamiento de Basauri financiará como máximo un porcentaje del 80% del total del importe del proyecto. El resto de la cofinanciación podrá provenir de fuentes públicas y/o privadas. Las valoraciones en especie por parte de la entidad solicitante y/o su socia local sólo serán permitidas para el caso de personal. En cualquier caso, el conjunto de financiación recibida por todas las fuentes nunca podrá llegar a superar el coste total del proyecto, según señala el punto 7.1 de estas Bases.

15.5. El porcentaje máximo de gastos directos de funcionamiento a cargo de la subvención del Ayuntamiento de Basauri

du emandako diru-laguntzaren zenbateko osoaren %5 gaintitu. Funtzionamendu-gastuen definizioa jakiteko, ikusi oinarri hauetako hurrengo atala.

15.6. Basauriko Udalaren diru-laguntzaren ardurapeko zeharkako gastu administratiboen gehieneko ehunekoak ezin izango du emandako diru-laguntzaren zenbateko osoaren %8 gaintitu. Zeharkako gastu administratiboen definizioa jakiteko, ikusi oinarri hauetako hurrengo atala.

16. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

16.1. Diru-laguntza jaso ahal izateko, gastuek (zuzenek zein zeharkakoek) honako eskakizun hauek bete behar dituzte inolako ezbaierik gabe: diruz lagundu daitezkeen jarduerarekin bat etortzea, eta guztiz beharrezkoak eta deialdi honen oinarrietan ezarritako epeetan eginak izatea.

16.2. Honako kostu zuzen hauek, eskakizunak betez gero, diruz lagundu ahal izango dira: a) lurrak eta eraikinak erostekoak; jabekuntza- eta titulartasun-araubidea zehaztatu beharko da, eta behar beste egiaztagiria aurkeztu; b) eraikinak eta azpiegiturak eraiki eta birgaitzekoak; jabekuntza- eta titulartasun-araubidea zehaztatu beharko da eta behar beste egiaztagiria aurkeztu; c) tresneria, materialak eta hornigaiak erostekoak; d) tokiko langileen kostuak; e) atzerriaratu diren langileen gastuak (bereziki, tokiko giza baliabideei prestakuntza ematekoak); g) lekuan bertan ordaindu beharreko mantenua, ostatua eta bertako bidaia-gastuak; h) proiektuaren funtzionamendu-kostuak, baldin eta gastuen osotasuna proiektuari zuzenean egotzi ahal bazaio (esaterako, proiektua kudeatzeko bulego bat irekitzeagatikoa gastuak; edo proiektua egikaritzeko soilik erabiltzen den ibilgailu baten gastuak). Erakunde eskatzailearen edo haren bazkidearen beste funtzionamendu-gastuak ezin izango dira barnean hartu, gastu horiek zeharkako gastutzat hartuko baitira; i) txandakako funtsa: onuradunei mailegu zuzen edo gauzazko mailegu gisa ematen zaien diru-kopurua, onuradunek hainbat baldintzaren arabera itzuli behar dutena; j) Bizkaia/Basaurin sentsibilizazioa bultzatzeko jardueren kostuak, baldin eta jarduera horiek proiektuarekin lotura zuzena badute.

16.3. Zeharkako kostuak ere diruz lagundu daitezke: administrazio- edo kudeaketa-gastuak izango dira, GGKE eskatzailearenak edo tokiko bazkidearenak, proiektuari esleitutako zati zehatza zein den bereizi ezin daitezkeen (administrazio-langile komunak, hartu-emanak, paperak, bulegoko alokairua, bulegoko materiala, etab.). Edonola ere, proiektua egikaritu bada, edo ekin-tza garatu bada, zeharkako kostuak justifikatutzat hartuko dira.

17. Gastuak egiaztatzeko formatuak

17.1. Proiektuen ezaugarri teknikoak, ezaugarri narratiboak eta aurrekontuak justifikatzeko, oinarri hauekin batera doazen eranskinen berariazko formatuak erabili beharko dira. Formularioak (eta, ahal denean, eranskin guztiak) idatzizko euskarrian eta euskarri elektronikoan aurkeztuko dira.

17.2. Formatu horiek eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean, eta interesdunek deskargatu ahal izango dituzte.

no podrá superar el 5% del importe total de la subvención concedida. Para la definición de gastos directos de funcionamiento, ver la sección siguiente de estas Bases.

15.6. El porcentaje máximo de gastos administrativos indirectos a cargo de la subvención del Ayuntamiento de Basauri no podrá superar el 8% del importe total de la subvención concedida. Para la definición de gastos administrativos indirectos, ver la sección siguiente de estas Bases.

16. Gastos subvencionables

16.1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos, tanto directos como indirectos, que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en las bases reguladoras de la presente convocatoria.

16.2. Serán gastos subvencionables los costes directos en los siguientes términos: a) La compra de terrenos o edificios de los que se especificará el régimen de propiedad y la titularidad, aportándose la documentación probatoria suficiente; b) La construcción o rehabilitación de edificaciones e infraestructuras de los que se especificará el régimen de propiedad y la titularidad, aportándose la documentación probatoria suficiente; c) La compra y transporte de equipos, materiales y suministros; d) los costes del personal local; e) los costes del personal expatriado, en el que se incluyen los seguros y salarios de las personas profesionales vinculadas al proyecto. Quedan excluidos los gastos del personal vinculado al seguimiento y evaluación del proyecto en sede, los cuales deberán ser asignados a la partida de costes indirectos; f) La prestación de servicios externos para actividades directamente relacionadas con el proyecto (en especial, los costes de formación de los recursos humanos locales); g) las dietas, alojamiento y gastos de viaje en terreno; h) Los costes de funcionamiento del proyecto, referidos a aquellos gastos corrientes exclusivamente en terreno que sean íntegra y directamente imputables al proyecto específico subvencionado (por ejemplo, los gastos de una nueva oficina abierta en el área del proyecto, exclusivamente para su gestión, o los de un vehículo dedicado exclusivamente al proyecto). No podrán incluirse otros gastos de funcionamiento comunes de la entidad solicitante o la socia, que deberán incluirse en los gastos indirectos; i) el fondo rotatorio, entendido como cantidad económica que se emplea como préstamos directos o en especie a las personas beneficiarias que deben ser devueltos por las mismas en unas condiciones determinadas; j) costes de actividades de sensibilización en Bizkaia/Basauri vinculadas directamente con el proyecto.

16.3. Serán también subvencionables los costes indirectos, considerando estos como los gastos administrativos y/o de gestión, tanto de la ONGD solicitante como de su socia local, que no puedan individualizarse específicamente para el proyecto concreto solicitado (personal administrativo común, comunicaciones y papelería, alquiler de oficina y suministros de la misma, etc.). En cualquier caso, la justificación de los costes indirectos se presumirá por la ejecución del proyecto o el desarrollo de la acción.

17. Formatos de justificación

17.1. Tanto los aspectos técnico-narrativos, como los presupuestarios de los proyectos deberán ser justificados por medio de los formatos específicos de justificación recogidos como Anexo a las presentes Bases. Los formularios (y todos sus Anexos) se presentarán tanto en soporte escrito como en formato electrónico.

17.2. Los citados formatos estarán disponibles en formato electrónico en la Web Municipal, para su descarga por las organizaciones interesadas.

III. KAPITULUA

GGKE-EI EMATEKO DIRU-LAGUNTZAK, BASAURIN GARAPENA ETA SENSIBILIZAZIOA BULTZATZEKO EKINTZAK GARA DITZATEN

- Laguntza-mota: Garapenerako lankidetzak.
- Diru-laguntzaren xedea: Garapena laguntzeko eta sentsibilizazioa sortzeko programak.
- Aurrekontu-saila: 13.3233.48164.
- Sailaren azalpena: Hirugarren Mundua laguntzeko Sentsibilizazio Kanpainak. Garapenerako eta Immigrazioarako Lankidetzak.
- Zenbatekoa: 50.325,57 euro.
- Diru-laguntza emateko prozedura: Lehiaketa.

CAPÍTULO III

SUBVENCIONES A ONGD PARA REALIZAR ACCIONES DE EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y SENSIBILIZACIÓN EN BASAURI

- Línea de subvención: Cooperación al desarrollo.
- Concepto subvencionable: Programas de sensibilización y ayuda al desarrollo.
- Partida presupuestaria: 13.3233.48164.
- Partida Descripción: Sensibilización Campañas 3er Mundo. Cooperación al Desarrollo e Inmigración.
- Importe: 50.325,57 euros.
- Régimen de Concesión: Concurrencia competitiva.

18. Xedea

18.1. Oinarri hauen ondoretarako, garapena eta sentsibilizazioa bultzatzeko ekintzak izango dira Basauriko herritarrei, orokorrean, edo berariazko talde batzuei, bereziki, zuzenduta daudenak; betiere, baldin eta ekintza horiek txirotutako herrialdeen egoeraren ezaugarriei buruzko prestakuntza ematea (egoera horren kausak eta hango erki-deek egoera hori gainditzeko egiten dituzten ahaleginak ezagutaraztekoak) edo haren egoerarekiko sentsibilizazioa sortzea helburu badute. Basauriko herritarrengan konpromiso-jarrera solidarioagoak sustatu nahi dira, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremanak bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak izan daitezen.

18.2. Honako ekintza hauek bereiziki hartzen dira barnean: a) sentsibilizazioa: epe laburrerako ekintzak, unean unekoak, herritar kopuru zabalagoari heltzeko lehenengo urratsa direnak; b) hezkuntza eta prestakuntza: epe laburrerako eta epe luzerako estrategiak: helburu argia eta metodologia zehatza izan behar dituzte, eta egoeren kausak sakon aztertu; helburua herritarrei horren garrantzia ohartaraztea izango da, ondoren, herritarrek ekintzak sor ditzaten; c) ikerkuntza: gizarte-ikerkuntzarako tresnak baliatzen dituzten ekintzak, zeinek beste ardatz batzuetan (esaterako, eragin politikoan) ekintzak garatzeko garrantzi berezia duten; d) eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa: ekintza horiek proposatu beharko dira, gizarte-, ekonomia- eta politika-egiturei eragiten dieten erabakietan eragina izan dezaten; eta, horrez gain, herritarren parte hartzea eta inplikazioa sustatu beharko dute.

18.3. Aurreko ekintzak hiru mailatan gara daitezke: a) Eredu formala: hezkuntza-erakundeek garatutako hezkuntza-prozesuak: erakundeek aintzatespen ofiziala izan behar dute, eta agintari eskudunek onartutako curriculumari jarraitu beharko diote; b) Eredu ez-formala: praktika antolatutak, behar bezala zehaztuak eta berariazko talde batzuentzat diseinatuak. Ez dira ikastegi ofizialetan emango, eta, hezkuntza-ekintzak bukatutakoan, ez da titulu edo ziurtagiri ofizialik emango; c) Eredu informala: asmorik gabeko ekintzak. Ikaskuntza-prozesu etengabea eta bat-batekoa da, eta hezkuntza formaletik zein ez-formaletik kanpo dago (familian, aisia-taldeetan, etab.).

19. Lehentasunak

19.1. Ekintza-motari dagokionez, Basauriko GGKEen balio erantsia eta konparaziozko baldintzak aintzat hartuta, honako hauek izango dira arlo lehenetsiak: a) sentsibilizazioa eta b) hezkuntza eta prestakuntza, aurreko atalean zehaztu diren bezala. Komunikazio- eta informazio-teknologia berriak erabiltzen dituztenak bereziki indartuko dira (betiere, baldin eta hartzaileentzat onuragarriak eta egokiak badira).

19.2. Mailei dagokienez, hezkuntza eremu ez-formalean eta informalean gauzatzeko ekintzak lehenetsiko dira. Hezkuntza formaleko esparruan egitekoak diren ekintzei lehentasuna emateko, ezinbestekoa izango da hezkuntza-erakundearen programazioaren osagarriak direla argi eta berariaz erakustea, eta dagokion ikastegiko zuzendariaren parte hartzeko konpromiso frogagarria (ez irakasleena soilik) atxikitzea.

19.3. Gaiei dagokienez, honako hauek lehenetsiko dira: a) bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua (eta turismo arduratsua ere bai); b) iparraldearen eta hegoaldearen arteko egitura-ekitate eza, batez ere, Latinoamerikako eta Afrikako herrialdeen testuinguru batzuetan aztertuta; c) haurren eskubideak; d) genero- eta garapen-berdintasuna; e) milurteko garapen-helburuak.

19.4. Hartzaile-taldeei dagokienez, eragin biderkatzailea izan dezaketen taldeei zuzendutakoak lehenetsiko dira: zehazki, honako hauek: a) hezitzaileak, aisialdiko monitoreak, etab.; b) gurasoen elkarteak; c) gazteen taldeak, mugimenduak eta elkarteak; d) hedabideetako profesionalak (kazetariak, ikasleak, kazetaritza-elkaragoak eta hedabideetan erantzukizuna duten pertsonak); e) GGKE-aren espezializazio-esparruarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten edozein erakunde edo entitate profesionaleko kideak; f) sindikatu-taldeak edo talde profesionalak, garapenerako hezkuntza-rekin lotura zuzena edo zeharkakoa dutenak; g) gizarte-ekintzak edota mugimenduak, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari lotuak (kontsumitzaileen taldeak, ortu partekatuak, ekoizleak, hazkunde-taldeak, etab.).

18. Objeto

18.1. A efectos de las presentes bases, se entenderá por acciones de educación para el desarrollo y sensibilización a aquellas iniciativas dirigidas a la población de Basauri en general y/o a colectivos específicos, cuyo objetivo sea la sensibilización y formación en aspectos relacionados con la situación de los países empobrecidos, las causas que las producen y los esfuerzos que sus comunidades están realizando para superarlas. Se pretende promover actitudes de compromiso solidario entre los ciudadanos y ciudadanas de Basauri por unas relaciones Norte-Sur más justas e igualitarias.

18.2. En concreto se incluyen acciones de: a) Sensibilización: acciones a corto plazo, puntuales y que significan el primer paso para la concienciación de un público amplio; b) Educación-formación: estrategias a medio y largo plazo con un público objetivo claro y una metodología claramente definida, que profundizan en el análisis de las causas de las situaciones tratadas, con el fin de que este tome conciencia para posteriormente actuar; c) Investigación: acciones que hacen uso de las herramientas de la investigación social y que tienen especialmente relevancia para las acciones que se puedan desarrollar en otros ejes como el de incidencia política; d) Incidencia política y movilización social: Se desarrollan con el objetivo de influir en decisiones políticas que afectan a las estructuras sociales, económicas y políticas a nivel local y global, haciendo posible la participación e implicación de la ciudadanía.

18.3. Las acciones anteriores pueden desarrollarse en 3 niveles: a) Ámbito formal: proceso educativo desarrollado por instituciones educativas, oficialmente reconocidas y que siguen el currículo aprobado por la autoridad competente; b) Ámbito no formal: prácticas organizadas y claramente definidas y diseñadas para grupos objetivos específicos. No se imparten en centros oficiales ni da lugar a titulaciones ni certificados oficiales; c) Ámbito informal: acciones no intencionadas. Se trata de un proceso de aprendizaje continuo y espontáneo, fuera del ámbito de la educación formal y no formal (familia, grupos de tiempo libre, etc.).

19. Prioridades

19.1. En cuanto a la tipología de acciones, teniendo en cuenta el valor añadido y ventajas comparativas de las ONGD de Basauri, se priorizarán las de: a) Sensibilización y b) Educación-formación, tal y como han quedado definidas en la sección anterior. En especial, se valorarán positivamente aquellas que potencien el uso de nuevas tecnologías de comunicación e información (siempre que estas sean relevantes y adaptadas a los grupos destinatarios).

19.2. En cuanto a los niveles, se priorizarán las acciones en el ámbito de la educación no formal e informal. Las acciones en el ámbito de la educación formal sólo serán priorizadas en los casos en que se demuestre clara y expresamente que son complementarias con la programación de las instituciones educativas y se adjunte compromiso fehaciente de participación activa por parte de la dirección (no únicamente del profesorado) del centro.

19.3. En cuanto a las temáticas, se priorizarán: a) Comercio justo y consumo responsable (incluyendo turismo responsable); b) Inequidades estructurales Norte-Sur, con el foco en contextos específicos de América Latina y África; c) Derechos de la Infancia; d) Equidad de Género y Desarrollo; e) Objetivos de Desarrollo del Milenio.

19.4. En cuanto a los grupos meta se priorizarán acciones dirigidas específicamente hacia grupos con efecto multiplicador. En concreto, se priorizarán: a) Educadores/as, monitores tiempo libre, etc.; b) AMPAS; c) Grupos, movimientos y asociaciones de jóvenes; d) Profesionales de medios de comunicación (periodistas, estudiantes, colegios de periodistas y personas con responsabilidad en los medios); e) Miembros de cualquier organización profesional y/o entidad relacionada con el ámbito de especialización de la ONGD; f) Grupos sindicales y/o profesionales, directa o indirectamente relacionados con la educación para el desarrollo; g) asociaciones y/o movimientos sociales relacionados con comercio justo y consumo responsable (grupos de consumidores/as, huertos comunitarios, productores/as locales, grupos decrecimiento, etc.).

20. Ekintzek bete beharrekoak

20.1. Basauri udalerrian egin behar dira. Ekintza Basauri ez den beste leku batean (probintzian, EAEn edo Estatuan) egitekoa baldin bada, Basauri udalerriko eremuan ondorio zuzenak eta zehatzak izango dituela frogatu beharko da.

20.2. Agerikoa izan behar du iparralde-hegoaldeko ikuspegiak. Basauriko arazoei heltzeko ekintzak ezin izango dira hautatu (garrantzitsuak izan arren), hegoaldeko egoerei nolabait lotuta ez badaude.

20.3. Ekintzak erakunde eskatzailearen planetan, programetan edo ohiko estrategietan koherentziaz epe ertain edo luzean sartu behar dira: esaterako, hegoaldean egin ohi duten lankidetzak-jardueren lotuta egotea, garapenerako hezkuntza-programa zabalagoen zati izatea, Estatuko edo Europako ekimenekin bat egitea eta abar.

20.4. GGKETik kanpoko taldeen jardueretan parte-hartzea sustatu behar dute (bereziki, boluntarioen parte-hartzea edo erakunde eskatzailearen edo eskatzaileen oinarri sozialarena, Basauriko etorkinena edota hegoaldeko erakunde bazkideena).

20.5. Igortzen diren mezuek eta irudiek Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinatzailearen Jokabide Kodea, 1998koa, bete behar dute.

20.6. Jaiotza, erlijioa, sexua edo iritzia direla eta, ekintzek ezin izango dute inolako bazterketarik eragin. Lortzea aurreikusi diren ondorioak ballatzerakoan, genero-berdintasuna sustatzeko ezagutgarriak bultzatuko dituzte, eta, epe luzeagoan, emakumeen enjinkizunak eta aintzatespen soziala eta politikoa Basaurin hobetzen laguntzeko neurriak.

20.7. Materialetan, hitzaldietan, zabalkuntza-jardueretan eta abarretan euskara erabiltzea, egokia eta bideragarria den guztietan; eta, batez ere, euskararen erabilerrari buruzko barneko udal arauaren betekizunei jarraiki.

20.8. Jada amaituta dauden ekintzak ez dira onartuko. Edonola ere, ekintzei ekin beharko zaie, diru-laguntza erakunde eskatzailearen kontu korrontean sartu eta hurrengo bi hilabeteetan.

20.9. Ekintzek 12 hilabeteko epean bukatu beharko dute.

20.10. Basauriko logotipoa agerian erakutsi beharko dute, eta jardueretan Udalaren laguntzaren berri emango da, ahal denean.

21. Eskabideak eta formatuak

21.1. Ekintzen alderdi teknikoei, narratiboei eta finantzaketak alderdiei dagokienez, azalpenak oinarri hauetako eranskinetan bildu diren aurkezpen-formatuetan idatzi beharko dira. Agiriaren egitura, atalak, edukia, luzera eta atxiki beharreko eranskinak (hala badagokio) ezin izango dira aldatu. Formularioak (eta, ahal denean, eranskin guztiak) idatzizko euskarrian eta euskarri elektronikokoan aurkeztuko dira.

21.2. Formatu horiek eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean, eta interesdunek deskargatu ahal izango dituzte.

22. Proiektuak balioesteko irizpideak

22.1 Proposamenak balioesteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat: a) proiektuaren kalitate teknikoa (30 puntu); b) eragileen gaitasuna eta harremanen kalitatea (35 puntu); c) genero-ikuspegia (15 puntu); d) aurrekontua (20 puntu). Irizpide bakoitzaren ezaugarri zehatzagoak eta baremoan duten eragina jakiteko, oinarri hauekin batera doan taula begira daiteke.

23. Diruz lagun daitezkeen zenbatekoak

23.1. Eskatzaile bakoitzak garapena eta sentsibilizazioa Basaurin bultzatzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdian ekin-tza bat baino ezin izango du aurkeztu.

23.2. Basauriko Udalari eskatuko zaion diru-laguntzak gutxienez 5.000 eurokoa eta gehienez 15.000 eurokoa izan beharko du aurkezten den ekintza bakoitzean. Eskatu den zenbatekoa muga horien barnean ez badago, proposamen hori aurkeztu duen

20. Requisitos de las acciones

20.1. Que se realicen en el ámbito municipal de Basauri. En el caso de que se trate de una acción de ámbito diferente al local (foral, autonómico, estatal) deberá probarse su repercusión directa y específica en el ámbito territorial de Basauri.

20.2. Que incorporen de manera clara el enfoque Norte-Sur. No serán elegibles aquellas acciones que aborden problemáticas presentes en Basauri (aún siendo relevantes) si no se vinculan de algún modo a contextos en el Sur.

20.3. Que se integren de manera coherente en los planes, programas y/o estrategias regulares a medio-largo plazo de la entidad solicitante (por ejemplo, que tengan cierta relación con sus acciones de cooperación en países empobrecidos, formen parte de programas más amplios de educación para el desarrollo, se alineen con iniciativas estatales o europeas, etc.).

20.4. Que fomenten la participación en la ejecución de las actividades de otros grupos externos a la propia ONGD (en especial, voluntarios o base social de la entidad o entidades solicitantes, grupos de inmigrantes en Basauri y/o socias locales en el Sur).

20.5. Que los mensajes e imágenes que transmita la acción respeten el Código de Conducta de la Coordinadora de las Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo de 1998.

20.6. Que no sean discriminatorios por razón de raza, sexo, religión u opinión, y en especial que incorporen aspectos de equidad de género, con medidas que garanticen el acceso de hombres y mujeres a los resultados previstos y contribuyan a mejorar, a más largo plazo, el rol y la posición sociopolítica de las mujeres en Basauri.

20.7. Que incorporen el Euskera en materiales, charlas, actividades de difusión, etc. en todos los casos en que sea oportuno y viable, en especial respetando los requisitos de la norma interna municipal de uso del Euskera.

20.8. No serán aceptadas acciones ya concluidas. En todo caso, las acciones deberán comenzar a ejecutarse durante los 2 meses siguientes transcurridos desde el ingreso efectivo de la citada subvención en la entidad solicitante.

20.9. Que las acciones finalicen en un plazo máximo de 12 meses.

20.10. Que incorporen de forma visible el logotipo del Ayuntamiento de Basauri y difundan el apoyo del ente municipal en las actividades llevadas a cabo, en aquellos casos en los que sea posible.

21. Solicitudes y formatos

21.1. Tanto los aspectos técnico-narrativos, como los presupuestarios de las acciones deberán ser redactados en los formatos específicos de presentación recogidos como Anexo a las presentes Bases, respetando siempre la estructura, apartados, contenido, extensión y adjuntos (en su caso) previstos. Los formularios (y todos sus Anexos, cuando sea posible) se presentarán tanto en soporte escrito como en formato electrónico.

21.2. Los citados formatos estarán disponibles en formato electrónico en la web Municipal, para su descarga por las organizaciones interesadas.

22. Criterios de valoración

22.1. Para la valoración de las propuestas se tendrán en cuenta los siguientes criterios: a) Calidad técnica del proyecto (30 puntos); b) Capacidad de actores y calidad de sus relaciones (35 puntos); c) Enfoque de género (15 puntos); d) Presupuesto (20 puntos). Los aspectos concretos y más detallados a valorar en cada criterio, así como su peso en la baremación pueden consultarse en la tabla anexa a las presentes Bases.

23. Cuantías subvencionables

23.1. Cada solicitante podrá presentar sólo una acción a la convocatoria de acciones de educación para el desarrollo y sensibilización en Basauri.

23.2. La subvención solicitada al Ayuntamiento de Basauri para cada una de las acciones presentadas, debe obligatoriamente encontrarse entre 5.000 euros, como límite mínimo, y 15.000 euros, como límite máximo. En caso de que la cantidad solicitada no se hallase den-

erakundeari zenbatekoa berrikusteko eskatuko zaio, aurreko 5.3. atalean aurreikusi den zuzenketak egiteko epean. Proposamena zuzentzen ez bada, ekintza ez hautagarritzat joko da, haren kalitate teknikoa balioetsi gabe.

23.3. GGKE batzuek osatutako partzuergoek aurkez ditza-keten proposamenei dagokienez, eskatutako diru-laguntza gehie-nez ere 25.000 eurokoa izan daiteke ekintzako.

23.4. Aurreko ataletan onartu diren udal diru-laguntzaren mugak direnak direla, Basauriko Udalak gehienez ere proiektua-ren zenbateko osoaren %80 finantzatzeko du. Erakunde eskatzailearen gauzazko balioespenak soilik onartuko dira langileen kasuan. Edonola ere, iturri guztiek emandako finantzaketa-zenbatekoa ezin izango da inoiz ekintza osoaren guztizko kostua baino handiagoa izan, oinarri hauetako 7.1 atalean zehaztu den bezala.

23.5. Basauriko Udalaren diru-laguntzaren ardurapeko administrazio-gastuen eta zeharkako gastuen zenbatekoak ezin izango du emandako diru-laguntzaren zenbateko osoaren %10 gainditu. Zeharkako gastu administrazioen definizioa jakiteko, ikusi oinarri hauetako hurrengo atala.

24. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

24.1. Diru-laguntza jaso ahal izateko, gastuek (zuzenek zein zeharkakoek) honako eskakizun hauek bete behar dituzte: diruz lagundu daitezkeen ekintzarekin bat etortzea eta guztiz beharrezkoak eta deialdi honen oinarrietan ezarritako epeetan eginak izatea.

24.2. Honako kostu zuzen hauek, eskakizunak betez gero, diruz lagundu ahal izango dira: a) tresneria, materialak eta hornigaiak erostekoak; b) erakunde eskatzaileko langileen gastuak, eta horren barnean hartuko dira proiektuan jarduten duten pertsona profesionalen aseguruak eta soldatak. Proiektuaren egoitzan proiektuari jarraipena eta ebaluazioa egiten jarduten duten langileen gastuak ez dira barnean hartuko, zeharkako gastuen aurrekontu-sailean esleitura egon beharko baitute; f) proiektuarekin lotura zuzena duten jardueri zuzendutako kanpoko zerbitzuen gastuak (bereziki, honako hauek: prestakuntza-kostuak, ikerlanak, tailerrak, materialen diseinua, edukiak hedabideetan zabaltzekoak, Interneteko diseinuak, etab.); g) mantenua, ostalua eta bidaia-gastuak;

24.3. Zeharkako kostuak ere diruz lagundu daitezke: GGKE eskatzailearen administrazio- edo kudeaketa-gastuak izango dira, diruz laguntzeko eskatu den ekintza zehatzari zein zati esleitu zaion bereizi ezin daitezkeen (administrazio-langile komunak, hartu-emanak, paperak, bulegoko alokairua, bulegoko materiala, etab.). Edonola ere, ekintza garatu baldin bada, zeharkako kostuak justifikatutzat hartuko dira.

25. Gastuak egiaztatzeko formatuak

25.1. Ekintzen ezaugarri teknikoak, narratiboak eta aurrekontuak justifikatzeko, oinarri hauekin batera doazen eranskinen berariazko formatuak erabili behar dira. Formularioak (eta, ahal denean, eranskin guztiak) idatzizko euskarrian eta euskarri elektronikoa aurkeztuko dira.

25.2. Formatu horiek eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean, eta interesdunek deskargatu ahal izango dituzte.

Basaurin, 2014ko apirilaren 16an.—Idazkari Nagusia, Gizarte Politikako Atal Burua

1. ERANSKINA

TXIROTUTAKO HERRIALDEETAN GARAPENA BULTZATZEKO LAN-KIDETZA-PROIEKTUAK BALIOESTEKO TAULAK

1. Proiektuaren kalitate teknikoa: Máx. 30

1.1. Proiektuak deialdi honetan dituen lehentasuna eta garrantzia ziurtatzeko, eskatzaileak behar beste datu eman ditu proiektuaren testuinguruari, aurrekariari eta identifikazio-prozesuari buruz?: Máx. 5.

1.2. Proposatutako jarduerak koherenteak al dira aurkitutako arazo, helburu eta emaitzekin?: Máx. 10.

tro de estos límites, se solicitaría la revisión de la misma a la entidad que presentó la propuesta, durante la fase previa de subsanación prevista en el punto 5.3. En caso de no corregirse, la acción se considerará sin más como no elegible, sin entrar a valorar su calidad técnica.

23.3. Para el caso de propuestas presentadas por un consorcio de varias ONGD, el límite máximo de subvención solicitada por acción se eleva hasta 25.000 euros.

23.4. Independientemente de los límites absolutos de subvención municipal permitidos en los puntos anteriores, el Ayuntamiento de Basauri financiará como máximo un porcentaje del 80% del total del importe del proyecto. Las valoraciones en especie por parte de la entidad solicitante sólo serán permitidas para el caso de personal. En cualquier caso, el conjunto de financiación recibida por todas las fuentes nunca podrá llegar a superar el coste total de la acción, según señala el punto 7.1 de estas Bases.

23.5. El porcentaje máximo de gastos administrativos y de funcionamiento indirectos a cargo de la subvención del Ayuntamiento de Basauri no podrá superar el 10% del importe total de la subvención concedida. Para la definición de gastos administrativos indirectos, ver la sección siguiente de estas Bases.

24. Gastos subvencionables

24.1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos, tanto directos como indirectos, que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en las bases reguladoras de la presente convocatoria.

24.2. Serán gastos subvencionables los costes directos en los siguientes términos: a) La compra y transporte de equipos, materiales y suministros; b) los costes del personal de la entidad solicitante, en el que se incluyen los seguros y salarios de las personas profesionales vinculadas al proyecto. Quedan excluidos los gastos del personal vinculado al seguimiento y evaluación del proyecto en sede, los cuales deberán ser asignados a la partida de costes indirectos; f) La prestación de servicios externos para actividades directamente relacionadas con el proyecto (en especial, los costes de formación, estudios, talleres, diseño de materiales, difusión de contenidos en medios, diseños en Internet, etc.); g) las dietas, alojamiento y gastos de viaje;

24.3. Serán también subvencionables los costes indirectos, considerando estos como los gastos administrativos y/o de gestión de la ONGD solicitante que no puedan individualizarse específicamente para la acción concreta solicitada (personal administrativo común, comunicaciones y papelería, alquiler de oficina y suministros de la misma, etc.). En cualquier caso, la justificación de los costes indirectos se presumirá por el desarrollo de la acción.

25. Formatos de justificación

25.1. Tanto los aspectos técnico-narrativos, como los presupuestarios de las acciones deberán ser justificados por medio de los formatos específicos de justificación recogidos como Anexo a las presentes Bases. Los formularios (y todos sus Anexos) se presentarán tanto en soporte escrito como en formato electrónico.

25.2. Los citados formatos estarán disponibles en formato electrónico en la Web Municipal, para su descarga por las organizaciones interesadas.

En Basauri a 16 de abril de 2014.—La Secretaria General, La Jefa del Departamento de Política Social

ANEXO 1

TABLAS DE BAREMACIÓN PARA PROYECTOS DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO EN PAÍSES EMPOBRECIDOS

1. Calidad técnica del proyecto: Máx. 30

